

Jon Alonsoren salaketen garrantziaz

USKAL HERRIKO LITERATURZALE ZAREN HORRI:

E

Apika irakurriko zenuen Jon Alonsok ARGIA honen urtekarirako Euskadi Saria deritzoten horiei buruz idatzitako artikulua *Berria* egunkarian. Bertan, batez ere eta besteak beste, Jon Alonsok, itzulpenari dagozkion sariak emateko epaile zela, bere begiez ikusitako irregulartasunak salatu ditu. Irregulartasunak zehaztasunez azaltzen dituelarik, irregulartasunik irregularrarena aipatu sariaren kudeaketaz baino arduratu beharko ez liratekeen dagokie. Salatzeaz gain, sariak, emana behar badira, beste era batera eman behar direla aipatzen du, gardenago. Irakurri ez duzuna da, ahapetik, aspalditik, Jon Alonsoren iritzi berekoak direla makina bat idazle. Apika irakurriko zenuen, batez ere, eta besteak beste, Euskadi Saria deritzoten horien kudeaketaz baino arduratu behar ez liratekeen horietakoa den Koldo Ordozgoitik gezurti deitu diola Jon Alonsori. Kargu politikoa den Ordozgoiti jaunak, hatzamarrez aukeratzen den horietakoa bera, Jon Alonsoren salaketak ikertu eta berriro horrelakorik gerta ez dadin neurriak hartuko dituztela esan zezakeen. Baina ez, bere harrokerian, Jon Alonso gezurtia dela esatea bururatu zaio, ipuinak kontatzen dituen eroa, inolaz ere, bizi izan ez dituenak kontatzen dituen mozkorra. Irakurri ez duzuna da, Jaurlaritzako langileei urtero zuzenbide administratiboari buruzko ikastaroak ematen dizkietela, finan esateko, edozein herritarrek ia ezinezkoa dutela administrazioaren kontra jo eta garaile ateratzea. Apika irakurriko zenuen Iñigo



DANI BLANCO

Aranbarrik Ordozgoiti kultura saileko komunikazio arduradunak Jon Alonsori egindako laidoak suminduta idatzitako artikulua. Irakurri ez duzuna da Iñigo Aranbarrik idatzirik artikulua horretako esaldi bakoitza beste horrenbeste idazlek ere sinatu dutena. Baina irakurriko duzu.

Apika irakurriko duzu saria jaso ez eta euren burua beti baztertutzat, beti biktimatzat jotzen duten lau idazle negartiren purrustada baino ez dela. Apika, irakurriko duzu horiekin bat egiten duten idazle gazte —burubako, orain punki gero yupie— sasi-iraultzaileek saria irabaziko ez dutela dakitelako egiten dutela bat. Hori baizen gehiago da eta irakurriko duzu.

EUSKAL LITERATURAZ BATERE ARDURARIK EZ DUZUN HORRI:

Apika, titularren bat irakurriko duzu, tabernaren batean aipatuko dizute, idazle jendea betiko legez, arreta zuzendu guran dabilela eta akaso pentsatuko duzu, zertan ari dira hauek bake-prozesua jokoan dela, zertan Erreala eta Athletic jaisteko arriskuan egonik, zertan txotx garaian bagaude? Zer uste dute horiek, ez dakigula sariak, bekak, dirulaguntzak eta enparauak, hemen eta leku guztietan, agintean daudenek, hatzamarren objektibotasun eta justiziaz, lagunkeria ematen direna? Hiru milioi pezetarengatik horrenbeste iskanbila? Zer da hori errepideak, eraikuntzak eta ostantzeko abiadura handiko obrak egiteko batzokietan esleitzen diren milioien aldean? Barkatu, idazletzaren duintasunagatik baino ez dugu egin gura. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Etxe honetako urtekarian, artikulua luze mamitsu batean literatur Euskadi Sariak xehatu ditu, bere

Jon Alonso

eskarmementuz ikasia zangoz goiti eman ditu saritzeko prozedurak salatuz. Eta dudarik balego berak idatzitakoan, astekarian errepikatu du argiki mezua. Koldo Ordoizgoiti batek, Eusko Jaurlaritzako enplegatuak ipuin-lari esan dio era iraingarrienean, egindako artikulua-salaketa fikzio merkea bailitzan. Ez dio heldu Jonen salaketaren muinari, horretako Ordogoizti jaunak erakutsi ez duen talentua eta oreka behar baita, ez, taktika dorpeena erabili du nagusiarenean bere lekua atxikitze edo. Laidoa.

Mezuari paso, mezularia jo. Boteretsuaren betiko taktika oldarkorra, arrazoirik ez, baina agintea bere alde duenarena. Ez da, bada, hain zaila izan behar ebi-

dentzia onartzea, nahiz eta taktika hutsa izan. Koadrilako zozoenak ere badaki hori egiten, tranpan erori eta handik ihes egiteko momentuan, nork ez zuen umetan ikasi “bai hala da baina” hura erabiltzen? Eta ondoren “aztertuko dugu...” batekin egoera berdin xamartzen? Ordogoiztik, sobra ere, ez zuen ikasi umetako legea eta bere eskasia agerian utzi digu umeak baiken. Dagoeneko norbaitek argitu dio asuntza, baina berez ez dut uste barkamenak eskatuko dizkionik ez Joni, ez guri. Botereak holako prenak ditu. ■